

5 PRAKTIKA

Praktikaren izenburua: *KAFE MAKINAREN INGURUAN GOGOETAN: Formakuntzaren komunikazioa hobetzeko estrategien bila*

Praktika mota: prozedurazkoa. Kasu erreal baten azterketa.

Ondoren kasu erreal bat jasotzen da; *KAFE MAKINAREN INGURUAN GOGOETAN: Formakuntzaren komunikazioa hobetzeko estrategien bila*.

Kasua arretaz irakurri ondoren, proposatzen diren galderei modu arrazoituan erantzun.

KAFE MAKINAREN
INGURUAN GOGOETAN:
Formakuntzaren
komunikazioa
hobetzeko estrategien
bila

Egileak: Virginia Perez-Sostoa eta
Itziar Rekalde

Donostiako (Euskal Herria)
auzo bateko Haur eta Lehen
Hezkuntzako Ikastetxe
Publiko batean, irakasleak
kafe makinaren inguruan
biltzen ziren egunero, goiz
erdian. 2009ko otsaileko egun
hartan, egunero bezala,
hainbat gai ari ziren
jorratzen...

Lehen Hezkuntzako seigarren
mailako irakasle batek aipatu
zuen oso pozik zegoela *Garatu*
Prestakuntza Ikastaroen
baitan (2008an horrela zuen
izena; gaur egun, *Prest Gara*)
adimen emozionalari buruz
egiten ari zen ikastaro
batekin. Haur Hezkuntzako
irakasle bat taldera elkartu
zen, eta hezkidetzari buruzko
ikastaroa ere ez zegoela
gaizki adierazi **zuen**. **"Ondo**
legoke ikaskuntza
kooperatiboari buruzkoa
guztio egitea Ikastetxetik
bertatik", erantsi zuen beste
irakasle batek. "Egin genuen
horri buruzko zerbait orain
urte batzuk, ez duzue
gogoan?", erantzun zion
gaztelaniako irakasleak, eta
erantsi **zuen: "Nik, ikasgela**
nola dudan ikusita, gatazka
nola ebatzi azaltzen duenean
eman behar nuke izena".
"Hemen egin behar
genukeena zera litzateke,
ahaleginei errentagarritasuna
atera", esan zuen irribarrez
Jone Larrea irakasleak,
Ikastetxeko Elkarbizitza
Proiektuaren koordinatzaile
ere bazenak. **"Niri ikaragarri**
gustatuko litzaidake aipatu
dituzuen ikastaro horietan
guztietan zer landu duzuen
jakitea, informazioa
partekatzea. Zuei ez?
Ikaskuntzak elkarri
komunikatzeko modua eta
tartea bilatu behar genuke".
Zenbait irakasleek baietsi egin

zuten. **"Zikloko bileran**
proposatuko dut", esan zuen
Jonek. "Lan asko daukagu,
baina pixkanaka
hobekuntzak sartzen joateko
estrategiak pentsa
ditzakegu". Jone Larrearen
ustez, beharrezkoa zen bide
berriak bilatzea Ikastetxean
formakuntza prozesuen
komunikaziorako espazioak
zabaldu ahal izateko.
Aztartzen ari zen nola eta non
bilatu formakuntza prozesuen
komunikaziorako eta
transferentziarako bideak,
horiek irakasle guztien
onurarako izan zitezten.
Proposamen bat prestatu
behar zuen.

Ilargi Ikastetxea. Lan eta
koordinazio egiturak.

Ikastetxearen deskribapena
2008/09 ikasturtean,
Oinarrizko Hezkuntzako
Ikastetxe Publikoak 46
irakasleko langile taldea zuen.
Lehen Hezkuntzako
lehenengo zikloan hiru talde
zeuden mailako, eta bigarren
eta hirugarren zikloetan,
berriz, bina talde. Irakasleak
mailaka, zikloka eta etapaka
biltzen ziren. Mailako
bileretan, tutoreak biltzen
ziren, eta zikloko bileretan,
berriz, tutoreak, espezialistak
(ingeleza, hezkuntza fisikoa,
musika) eta pedagogia
terapeutikoko irakasleak,
bederatzi edo hamar
pertsona inguru, batez beste.
Haur Hezkuntzan 13 irakasle
biltzen ziren, bi urtetik bost
urtera bitarteko haurrekin lan
egiten zuten irakasle guztiak
elkartzen baitziren. Etapako
bileretan 13 eta 25 pertsona
bitarte biltzen ziren.
Ikastetxeko koordinazioa Jone
Larreari behin baino
gehiagotan etorri zitzaion
gogora lankideekin kafe
makinaren inguruan izandako
elkarrizketa hura. Guztiek
uste izan zuten interesgarria
izango zela irakasleek egiten
zituzten formakuntzei
buruzko informazioa
partekatu ahal izatea.
Pentsatu zuen ahalegina egin

behar litzatekeela aztertze
nola bilatu tartea, nola
libratu denbora, irakasleek
informazio hori beren artean
trukatu ahal izateko. Gogoeta
horrek astean zehar izaten
zuen bilera kopurua (1. taula)
ekarri zion gogora (ikus 1.
eranskina). Ziklo guztiek
bilera ordutegi berbera zuten,
12:30etik 13:30era.

Astelehena	Lan pertsonala	1
Asteartea	Mailako bilera	1
Asteazkena	Irakasleen bilera programatua	1:30
Osteguna	Zikloko bilera	1
Ostegun arratsaldea	Koordinazio Pedagogikoko Batzordea	1

1. taula. Bileren asteko
kronograma. Iturria.
Elkarrizketatuak emandako
informazioa.

Ikastetxean aldaketak egiten
hasi ziren azken hiru
ikasturteetan. 2008an, Haur
Hezkuntzan eta Lehen
Hezkuntzako lehenengo
zikloan mailako bilerak
zikloko bilera bilakatzen hasi
ziren, eta bi mailetarako
interesgarriak ziren gaiak
jorratzen, hala nola
idazketaren ikaskuntza,
grafo-motrizitatea eta beste
hainbat gai, euskarazko zein
gaztelaniako irakurketa-
idazketarako materiala
aztertu eta berritze
beharra, besteak beste.
Aldaketa horren arrazoia zera
izan zen, tokia egin nahi
zietela zenbait gai
pedagogikori, horien gainean
gogoeta egiteko eta ziklo
gisa adostasunak lortzen
saitezko.

2009an, Ikastetxean lehen
aldiz sustatu zen mailako
bilerak malgutzea; hartara,
irakasleek beharra bazuten
Ikaskuntza Kooperatiboa
jorratzeko (tutoretzapeko
proiektu bat), ziklo osoaren
intereseko gai bat zena,
mailako bilera hamabost

egunean behin egingo zen, saioetako bat zikloko lana egiteko utzita. Jonek sentitzen zuen ez zegoela denborarik gogoetarako eta berrikuntza pedagogikorako, eta pertzepzio hori hedatua zegoela klaustroan. Gainera, iruditzen zitzaion zikloko koordinazioa indartu beharra zegoela. Egitura zabalagoetan lan egiteko joera antzematen ari zen pixkanaka. Ildo horretan, Jonek maiz hausnartzen zuen zer- nolako garrantzia zuen **etapak**. **"Ez dugu ohitura handirik etaparen egituratik lan egiteko. Iaz proposatu zen aukera, eta zenbait urrats egiten ari gara"**; **espazio ona** izan liteke formakuntza lanerako.

Ikastetxean 2007az geroztik egindako formakuntza prozesuak Kafe makinaren inguruan izandako elkarrizketaren ostean, Jone Larreaki gogora etorri zitzaizkion 2007az geroztik Ikastetxean izandako prozesuak. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren prestakuntza eskaintzarekin bat etorrita, Illargi Ikastetxeak, bere ibilbidea tarteko, beti erantzun izan zien formakuntza proposamenei. 2007/08 ikasturtean, lanean hasi zen Elkarbizitzan, Bakean eta Giza Eskubideetan Heztekoko Programarekin, zeina baitzegoen kokatua Administrazioak 2007- 2010 hirurtekorako proposatutako bigarren ardatzean. Programa horretan, lehenetazko lerrotzat proposatuta zegoen **"Elkarbizitza eta hezkuntza komunitatea" gaia, horrek kezka eragiten baitzuen, "ez soilik beharrezko baldintza bat zelako irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak eraginkortasunez gara zitezen, baizik eta, halaber, eta nagusiki, oinarritzko ikaskuntza bat delako, zeinari eskolak lagundu egin behar**

baitio, oinarri teorikoak nahiz pertsonarteko eta taldeko harreman osasuntsu eta positiboen bizipen praktikoak **eskainiz"**.

Azken urteetan, klaustroarentzako formakuntza proposamena zuzendaritzaren esku egon zen, Administrazioaren proposamenak aintzat hartuta.

Elkarbizitza Plana prestatzeko proiektuan hezkuntza komunitateko kide guztiek (irakasleak, irakasle ez ziren langileak, ikasleak eta familiak) parte hartu zuten, nor bere neurrian. Irakasle klaustro osoa inplikatu zen. Jone zen koordinatzailea, eta Batzorde Pedagogikoarekin batera antolatzen zuen Proiektuaren inguruko lana. Lehenengo urtean, sentsibilizazio eta diagnostiko lanetan ibili ziren, eta hurrengo ikasturterako plangintza prestatzen.

Lehenengo zikloan ikaskuntza emozionalari buruzko hitzaldi bat antolatu zuten, eta bigarrenean, berriz, Ikaskuntza Kooperatiboko Proiektua prestatu zuten, parekoen arteko tutoretzan oinarritua; proiektu horretan bederatzi irakasle parte hartu zuten. Balorazioa oso positiboa izan zen, eta hurrengo ikasturtean proiektua berriro egitea eta ikaskuntza kooperatiboaren aukeretan sakontzea aztertu zuten. Koordinatzaileak **"Elkarbizitza positiborako kompetentziak finkatzea"** izeneko ikastaroa egin zuen, Garatu programaren baitan (egungo Prest Gara).

Ikasturtea amaitu zenerako, Ikastetxean itxita zegoen diagnostiko fasea, eta hainbat helburu zehaztu, eta hurrengo urtean hasiko zituztenak lehenetsi ziren. Elkarbizitzarekin lotutako gaietan formakuntza

jasotzeko beharra antzeman zen (hezkuntza emozionala, gatazken ebazpena ...). Jone, proiektuaren koordinatzaile gisa, eta Batzorde Pedagogikoa arduratu ziren hurrengo ikasturteko formakuntzaz eta plangintzaz, eta bertan sartu zituzten helburuak, zeinak Eskola Kontseiluak onartuko zituen eta Ikastetxeko Planean txertatuko ziren.

Hurrengo urtean, 2008/09 ikasturtean, irakasleei aukera ematearren Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskaintako ikastaroetan (Garatu-Prest Gara) Elkarbizitza Planarekin zerikusia zutenak hautatzeko, ohiko prozedura erabili ordez (zeina zetzan irakasleei jakinaraztean ikastaroen zerrenda zehatza eskuragarri zutela Zuzendaritzan), Jonek, Planaren koordinatzaile izaki eta Batzorde Pedagogikoaren nahiz Zuzendaritzaren babesarekin, elkarbizitzarekin (zentzu zabalenean hartuta: parekoen arteko tratu txarra, hezkuntza emozionala ...) zerikusia zuten ikastaroen zerrenda bat prestatzea eta irakasleei aurkeztea erabaki zuen. Interesgarria iruditu zitzaion informazioa antolatzea, testuinguruan jartzea eta Ikastetxeko proiektuarekin lotzea. 10 irakasle eman zuten izena, eta gai hauei buruzko ikastaroak egin zituzten, besteak bate: parekoen arteko tratu txarra, gatazken ebazpena edo elkarbizitza eta kulturarteko hezkuntza.

Egindako ikastaroen informazioa ez zen formalki hedatu Ikastetxean.

Irakasleek Garatu (egungo Prest Gara) programako beste ikastaro batzuk ere egin

zituzten, norik bere interes pertsonalen arabera. Jonek ez zekien zehazten zenbat eta zein ziren, matrikula lkastetxetik kanpo egiten baitzen. Batzuei buruzko informazioa lortu zuen bai, baina espazio informaletako elkarrizketei esker, hala nola kafe makinaren inguruan izandako elkarrizketei esker. GARATU aukera erabat pertsonaltzat planteatu izan zen beti, eta ez zen jakiten ez klaustroan ez zikloetan zer formakuntzatan parte hartzen zuten irakasleek.

Elkarbizitza Planaren baitan (bigarren urtean), 2008/09 ikasturterako helburuak ezarri ziren, eta klaustroak hobetu beharreko alderditzat aipatu zituen, besteak beste, koordinazioa indartu beharra eta bileretan emandako denboraren optimizazioa. Hortik sortu zen taldeko lanak hobetzen hasteko beharra –optimizazio plana–. Prozesu horretan sartuta zeuden Elkarbizitza Batzordea, Zuzendaritza, Jone (Elkarbizitza Planaren koordinatzaile gisa), klaustroa eta kanpo aholkulari bat.

Jonek gogoratu zuen 2008 ikasturte hasieran taldeen beharren diagnostikoa egiteko gauzatutako fasean, zeinetan lagundu zuen kanpo aholkulari batek, ezinbestekotzat jo zutela bileretatik ezabatzea kontrasterik behar ez zuten beste bide batzuetatik jakinaraz zitezkeen gaiak, denboraren zati handi bat horiek jorratzeko erabiltzen **baitzen**. "**Zaila** da, baina uste dut hori dela gaiaren gakoa, funtzionamenduari lotutako kontuak beren kabuz joan daitezela **lortzea**", "**Batzorde** Pedagogikoarengai zerrenda ikastetxearen funtzionamenduari lotutako gaiez betetzen da. Zikloetara joan- etorriko **bidaiak da ...** orain inauteriak, orain ordutegiak, irteerak...". "**Informazio hori idatziz**

helaraztea lortu behar genuke, edo automatizatuta egotea, alderdi eta eduki pedagogikoagoei tokia egiteko. Baliagarria izan liteke eguneroko kontuak gai zerrendetatik ateratzea (2. eranskina)". Neurri batean, gaiak errepikatu egiten ziren zikloko bileretan, horietan Batzorde Pedagogikoaren akta irakurri eta eztabaidatzen baitzen.

Lan prozesu horietan eta lkastetxeko beste batzuetan, Jonek formakuntzako beste eremu oso garrantzitsu bat balioesten zuen: Berritzeguneek eskainitakoa (Hezkuntza Formakuntzan eta Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak). Haren esanetan, "**mintegi ugari dago**. Horietako batzuetara pedagogia terapeutikoko irakasleak joaten dira; beste batzuetara, Emigrazioaren Arretarako Saileko kideak, eta beste batzuetara zuzendariak. Iritzi orokorra da oso ongi daudela, oso interesgarriak direla. Inguruneko ikastetxe guztietako irakasleak joaten dira, eta gauza jakina da oso jende ona ekartzen dutela". Jonek iritzi, formakuntza horrek eragina zuen tartean ziren pertsonen lanean, baina ez zegoen horren hedapenik. Formakuntza horien **potentzialak "ez zuen onurarik gainerakoengan"**. Jone konturatuta zegoen irakasleek gauzatutako formakuntza modalitate desberdinen bidez informazio asko mugitzen zela lkastetxean.

Jonek aztertu zuen nola eta non bila zitezkeen formakuntza prozesuen komunikazio eta transferentziarako bideak, lkastetxeko irakasle guztiengan izan zezaten onura. Aldi berean, mahai gainean zuen egutegiari erreparatzen zion bitartean, pentsatu zuen ea Administrazioak modu

berean planteatuko zuen formakuntza 20xx/20xx ikasturterako ere (X-en ordez jarri egungo ikasturtearen datuak).

1. eranskina. Ikastetxeko bileren egutegia

- Astelehenak bakarkako lanerako erabiltzen zituzten, irakasle bakoitzak behar zuenerako: "bakoitza berera".

- Zikloko eta mailako bilerak astearte eta ostegunetan egiten zituzten, hurrenez hurren; ordubetekoak izaten ziren.

- Koordinazio Pedagogikoko Batzordea (mailako koordinatzaileek eta Zuzendaritzak osatua) astean behin biltzen zen, arratsaldean, eta hainbat gai jorratzen zituen, baina, batik bat, lkastetxeko oinarriko funtzionamenduari buruzko gaiak. Prozedura gisa, "**zikloetako ekarpenak**" biltzen zituen, aztergaien zerrendako lehenengo puntu gisa, eta ondoren berriz zikloetara eramaten zuen Batzordeari buruzko informazioa.

- Irakasleen asteazkenetako bilerak ordu eta erdikoak ziren, eta ikasturteko lan segida osoa programatuta zegoen jada. Bilera horietan jada sartzen ziren elkarbizitzari buruzko gaiak, bileren optimizazioa eta lkastetxeko funtzionamenduari buruzko zenbait alderdi, 2008an premiak aztertzeke egindako ebaluazio batean antzemandakoak. Asteazken batzuetan teknologia berrietan eta ebaluazio diagnostikoan lan egiten zuten.

- Abenduko eta ekaineko bilerak familiekin biltzeko erabiltzen ziren, sistematikoki.

2. eranskina. Batzorde Pedagogikoaren aztergaien zerrenda baten adibidea

Batzorde Pedagogikoa
Data: 09-03-29 Ordua: 14:55
1. Zikloko bilerak. 20'
2. Laguntza Departamentuaren bilerak 5'
3. Jaien balorazioa 15'
5. Tutoreen zereginen erregistroa 10'
6. Matrikula 5'
7. Ebaluazio proposamena 2'
8. Antzerkia 5'
9. Beste batzuk ...

Erantzuna

Jarraian ematen den erantzuna orientagarria baino ez da. Ez dago erantzun bakarra

Sarrera

Argi dago hasierako prestakuntzak eta etengabeko prestakuntzak garrantzi handia dutela irakasleek izan beharreko egoera-aniztasunari aurre egiteko. Pentsa genezake prestakuntzaren kalitatea handituz gero, hezkuntzaren kalitatea handituko dela. Hala ere, paradigma ekologikotik garatutako azterketek jada ohartarazi ziguten baieztapen horren arriskuaz, egoera- eta esperientzia-aldagaien garrantzia indartuz (Esteve, 2000). Irakaslearen garapena ez da hutsean gertatzen, antolamendu- eta curriculum-garapenaren testuinguru zabalago baten barruan baizik.

Zenbait printzipio onartzen ditugu irakasleen prestakuntzaren kontzeptuaren atzean (Marcelo, 2000), Jone Larrea irakasleak bere ikastetxean planteatzen duen arazoari heltzeko eta hura sartzeko balio digutenak. Lehenik eta behin, irakasleen prestakuntza etengabeko interaktibo gisa ulertzen dugu, ikaskuntza-mota asko uztartzen dituen metatzaile gisa. Bigarren printzipioa irakasleen prestakuntza aldaketako, berrikuntzako eta curriculum-garapeneko prozesuetan integratzeko beharrari buruzkoa da. Horregatik ikusten da irakasleen prestakuntza-prozesuak eskolaren antolaketa-garapenarekin lotu behar direla.

Irakasleen prestakuntzak eskolari eta irakasleen eguneroko errealitateari lotuta egon behar du. Ikastetxea oinarritzko aldaketa-unitate gisa ulertzeak irakasleak ikaskuntza-prozesu propioak garatu behar dituen erakunde batean murgilduta **dauden profesionalak direla egiaztatzeari erantzuten dio (Escudero eta González, 1994).**

Escudero-k (2008) adierazten duen bezala, irakasleen prestakuntza onak irakasle bakoitzarengan kide den ikastetxearekiko eta bertako lankideekiko kontzientzia, gaitasuna eta konpromisoa garatzeko helburua izan behar du. Lankidetzaren beharrezko apustua da irakaskuntzako isolamendua berreskuratzeko, ikastetxeko kide izatearen sentimendua indartzeko eta irakasleei laguntza moral eta intelektuala emateko gizarte-esparrua osatzen duten erabaki eta jardueretan inplikazio erantzunkidea sustatzeko.

Garapen profesionala etengabeko ikaskuntza da, interaktiboa, metatzailea, eta askotariko ikaskuntza-formatuak konbinatzen ditu (Fullan, 1987). Illargi ikastetxeak prestakuntza-proiektu ezberdinetan parte hartu du beharren arabera. Hortaz, hainbat beharrian motaz ari gara: banakako beharrak, taldeen beharrak eta eskola osoaren beharrak (Oldroyd eta Hall, 1991). Prestakuntzaren eragina desberdina izango da kasu batzuetan eta besteetan (Tejedor, 1990).

Ikastetxe guztientzat banakako premiei eta, taldeen eta eskola osoaren premiei erantzutearen arteko oreka aurkitzea erronka da. Jone, ikastetxean dagoen prestakuntza guztiak irakasle guztiengan eragin handiagoa izateko beharraz ohartzen denean, informazioa emateaz ari da, bai eta eskuratutako ezagutza banaka edo taldeka transferitzeaz ere.

Kasua

Jone Larreak hiru prestakuntza-modalitate aipatzen ditu:

1) Garapen profesional autonomoa.

Garapen profesional autonomoaz ari garenean, irakasleek erabakitzen dute beren burua prestatzea eta beren garapen profesional edo pertsonalerako beharrezkotzat jotzen dituzten gaitasunak garatzea. Irakasleak beren prestakuntza-ibilbidea diseinatzeko eta antolatzen dute.

Irakasleak banaka sar daitezke Hezkuntza Administrazioak proposatutako prestakuntza-eskaintzan (Prest-Gara programa). Prestakuntza horrek eragin handiagoa izan lezake ikastetxean, baldin eta sozializatuko balitz, ikusaraziko balitz, lantaldeen esparruan txertatuko balitz, eta ikastetxeko gainerako irakasleei zabalduko balitz.

2) Zentroan garatzen den prestakuntza (ikastetxeko prestakuntza).

90eko hamarkadaz geroztik, ikastetxeetako prestakuntzak irakasleen arteko lankidetzaren harreman dinamikoak sustatu nahi izan ditu. Alde batetik, irakasleen isolamendua eta indibidualismoa gainditzeko, ikastetxean curriculum eta irakaskuntza hobeto koordinatzeko harremanak aktibatuz, eta, bestetik, irakasleen arteko ideien eta esperientzien trukea irakasleen ikaskuntza sustatuz. Proiektuak gauzatzeko prestakuntzak ikastetxean duen inpaktu kolektibo zabalagoak inplikatzen ditu; irakasle-taldeen nahiz klaustro osoaren beharrek eta proposamenek eragin dezakete; ikastaroetan edo etapetan ardaztuta egon daiteke; besteak beste (Imbernon, 1994 eta 2008).

3) Zonaldeko prestakuntza

Prestakuntza zonaldeko ikastetxe-sareetan egin daiteke, baina ikaskuntzak ikastetxeari transferitzeko aukera ahalbidetu eta kontuan hartu behar du uneoro.

Jone Larreak aipatzen duen modalitate hori ikastetxetik kanpo garatutako prestakuntza-prozesuetatik eratortzen da, hezkuntza-prestakuntza eta -berrikuntza laguntzeko zentroen bidez (Berritzegunea), mintegien eta ikastaro monografikoen bidez, besteak beste. Jonek emandako prestakuntza oso positibotzat jotzen du, baina ahultasun gisa ulertzen du kasu honetan bere potentzialaren zati bat galtzen duela, esku hartzeko eremu zehatzetara mugatzen baita, irakasle espezialistei esleitutako eremuetara, eta ez da errazten haren zabalakundea.

Prestakuntzaren komunikaziorako oztopoak eta hauek hobetzeko bide posible batzuk:

Kalitatezko irakaskuntzak denbora garrantzitsuak eskatzen ditu; pentsatzeko, planifikatzeko, zer gertatzen den hausnartzeko, partekatze, besteekin koordinatzeko... Nola eduki behar dira beharrezko denborak lanerako eta berrikuntzarako? (Escudero, 2008). Aukera batzuk:

- Etaparen eta zikloaren espazioa sortzea. Gune honek prestakuntza-ikastaroen laburpena jasoko luke. Gainerako irakasleentzat baliagarriak izan daitezkeen **materialak, esperientziak ... jasoko lituzke.**

- Proiektuetatik datozen prestakuntza-premia berriak banakako prestakuntza-proposamenekin lotzea.

- Ikastetxeko prestakuntza-prozesuak diseinatzea, eskolak dituen premia zehatzei erantzuteko. Ikastetxeak beharizanak jaso behar ditu: kolektiboak, banakakoak edo taldekoak.
- Prestakuntza-beharren behatoki bat sortzea, ikastetxea inplikaturata dagoen prestakuntza-prozesuen ikuspegi orokorra eduki ahal izateko.
- Hiruhileko guztietan klaustroaren saioren bat liberatzea, zentrotik kanpoko profesional espezialisten prestakuntza aurkezteko.

Epilogo

Honela jarraitu da lanean:

- Ikastetxeak lana etapan arabera zabaltzen jarraitzea aurreikusi du, eduki pedagogiko handiagoa emanez eta ikasturtean zehar hainbat saiotan ikasleek egiten dituzten prestakuntza-ikastaroen aurkezpena sartuz.
- Irakasle-taldeak hobetzeko lanak aurrera jarraitzen du, eta prestakuntza-ikastaroei proiektuekin duten loturari eutsi nahi zaio, zikloetan eta etapetan ikustaraziz.
- Elkarbizitza-proiektuaren koordinatzaileak jarraipenerako bide gisa ikastetxeko Urteko Prestakuntza Planean egindako lana adierazi du.

Kasuari erantzuteko erabilitako erreferentzia bibliografikoak

- Escudero, J.M. (2008).** *Para seguir pensando la formación en Centros.* Caleidoscopio, *Rev. de contenidos educativos del CEP de Jaen*, 1.
- Esteve, J.M. (1997). *La formación inicial de los profesores de Secundaria.* Ariel.
- Imbernon, F. (1994). *La formación y el desarrollo profesional del profesorado.* Grao.
- Imbernon, F. (2008). *10 ideas clave. La formación permanente del profesorado.* Grao.
- Marcelo, C. (2000). *Formación de profesores para el cambio educativo.* EUB.
- Tejedor, F.J. (1990).** *Perspectiva Metodológica del diagnóstico y evaluación de necesidades en el ámbito educativo.* *Revista de investigación educativa*, 8 (16).